

ORAIN BERROGETA AMAR URTE

1951n. urtean, bagillaren 29n. egunean izan zan. Goizean goizetik batu gintzan Begoña'ko eleiza ederean, ospakizun aundi eta eder bat egiteko: Ainbeste urtetan biotzean genduan amets eta gurari eder bat beteteko eguna zan.

Ospakizuna asi zanean, gure aurrean aurkeztu zan Bilbao'ko Gotzain izendatu-barria zan Kasimiro Morzillo eta bere ondoan Meñaka'koa zan Aurtenetxe ta Goitia'tar Frantzisko (D. Pako). Azkenengo onek berba gogoangarri oneik esan ebazan: "Urreratu beitez abade-mailla artu bear dabenak".

Eleizearen dei orreri erantzunez, pozik aurreratu giñan.

Itzalditxu bat egin ondoren. Gotzaiñak gure buru-gaiñean eskuak ezarrita, berba sagaratzailleak esan ebazan.

Bai, abadeak giñan, betirako abadeak.

Egunak, norkiak eta tokiak

Bakoitxaren bizitzan eta gure fede-bidean egun gogoangarriak izaten dira eta egunakaz batera doaz norkiak eta tokiak.

1927n. urteko zemendiaren 18n. egunean bateatu ninduen aurreko egunean jaioa nintzan au eta bateatzaile Kortezubiko Juan Jose Baztegieta abadea izan zan. Ez daukat aitzuta abade ori eta abade egin nintzeanean eskutitza cgin neutsan. Erantzun be bai berak egokiro. Bateo-egunaren urteagarrenak ospatzeko, urtero joaten naz Gamiz neure errira eta ponte edo bateo-arriaren aurrean "sinisten" dot eta "Gure Aita" esaten dodaz. Orra or eguna, norkia ta tokia.

Abadegintza-eguna gogoratzeko Kasimiro Gotzaiña eta Begoña'ko eleiza izaten dodaz kontuan.

Baiña urteurrenak ospatzean, era bereizian aunkiro opatzen dira 25n. 50n. eta 75n. urteak. Oiturea da. Eta aurten berrogeta amargarren urtea ospatzen dogu.

Jazokizunak

Ospakizun au egiteko berrogeita amar urte oneitako jazokizunak gogoratzen doguz: Ubide'ko iru urteak.

Fruniz'ko 11 urteak, Mungia'ko bost zigor-urteak, Zeanuri'ko amar urteak, Bermeo'ko sei urteak eta Mungia'ko amabost urteak, eta urte orrein barruan egindako abade-etxe barriak, ikertuko gaisoak, lenengo jaunartzeak, ezkontzak, illetak... eta erri-giroko ikasketak Obiedo'n, Madrid'en eta Deustu'n, etxetik joanda. Militarrek, Gotzaiñak eta erri-epaikariak ezarri eustezan epaiketak eta Olite'ko Lekaide-etxean, nitzat espetxe biurtua orduan ondo igaro neban illebetea, Santiago egunean Ipiñaburu'tik urten eta ara joan ondoren.

Berrogeta amar urte bete-beteak izan dira, geienetan egunean sei-zortzi ordu gazteai irakasten igarota.

Gaurko egoerea

Igaroak igaro, ona emen zar-saridun eta al dodan neurrian laguntza emoten: Egunero Zarren egoitzan mezea, astero ain maitu dodan Fruniz'ko errian mezea emonda eta orduak eta orduak irakurten eta idazten eginda.

Sasoi onetan osasunari begiratu bear dautsagu geiago, egunero osakiak artuz, ibillaldiak egiñez, jan-edanagaz kontuz ibilliz.

Eta asti geiago daukat otoitz egiteko, bakarrik naiz lagunakaz. Orrelan lortzen dot Jaungoiko Aita onaren eskuetan uste osoz bizi izatea.

Fedeari be ardura bereiziaz begiratzen dautsat, garbiagoa ta sendoagoa izan daiten irakurten dodazen liburuak lagun dirala. Azkenengo liburu bi aitatuko dodaz egun oneitan irakurriak: Hermas'en artzaiña, Kerexeta adiskideak euskeratua, liburu polita, irudimeñez eta jainko-zaletasunez bete-betea eta Meier'ena eta Kristoren erri-edestiari buruz dan liburua, fedea argitzeko eta fedea eldua daukenentzat oso egokia, egiaren bildurrik bagarik irakurri bear dana.

Orra or "urrezko eztegu"en urteko zeregiñak, bide orretatik jarraituko dot urte osoan.

Irakurle! Otoitz bat egizu Jaunak emondako zeregin au aurrerantzean be zeatz eta zintzo bete dagidan. Eskerrik asko. ■

OLAZAR'tar Martin'ek